



**Gradu ikasketetan kredituak
onartuak izateko araudia,
Unibertsitateak sustatutako
eskolaz kanpoko ekitaldi eta
jardueretan parte hartzeagatik**

Gradu ikasketetan kredituak onartuak izateko araudia, Unibertsitateak sustatutako eskolaz kanpoko ekitaldi eta jardueretan parte hartzeagatik.

SARRERA

2010eko uztailaren 2ko 861 Errege Dekretuak xedatzen duenez, graduko ikasketetan, 6 ECTS onartu ahal izango zaizkio ikasleari, Unibertsitateak antolatutako eskolaz kanpoko ekitaldi eta jardueretan parte hartzeagatik. Ekintza eta jarduera horiek hainbat motatakoak izan daitezke:

- ✓ Ikasleen ordezkariak jarduerak.
- ✓ Kirol jarduerak.
- ✓ Unibertsitateko kultura jarduerak.
- ✓ Elkartasun eta lankidetzak jarduerak.

Horrela:

"8. Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 46.2.i) artikuluan arabera, ikasleek, kredituen onarpen akademikoa jaso ahal izango dute, unibertsitateko kultura, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak jardueretan parte hartzeagatik. Aurrekoaren efektutara, jarduera horietan parte hartzeagatik, ikasleek, ikasketen plan horren guztizkotik 6 kredituko onarpena lortzeko aukera izan beharko du." "

Hori dela eta, Enpresagintza Fakultateak, ekitaldi eta jardueren eskaintza zabala prestatu du graduko ikasleentzat. Ekitaldi eta jardueren bidez, kredituak onartzeaz gain, Fakultateak honako balio hauek sustatu nahi ditu, ikasleek barneratu ditzaten:

- ✓ Lankidetzak.
- ✓ Parte hartzea, misioarekiko konpromisoa.
- ✓ Erantzukizun soziala.
- ✓ Prestakuntza, garapen pertsonala.

Balio horietaz aparte, euskararen erabilera eta berdintasuna ere, bultzatu nahi ditu.

Enpresagintza Fakultateak, arauak eta prozedurak ezarri behar ditu, kudeaketa arlo ezberdinei dagozkien zereginak tramitatu ahal izateko. Hori dela eta, araudi hau onartu egiten du.

XEDAPENAK

Lehenengoa.- Fakultate honetan matrikulatutako ikasleek, kredituen onarpena eskatu ahal izango dute, kultura, kirol, lankidetzeta eta ikasle ordezkarietako jardueretan parte hartzeagatik. Ikasketa aldiaren egindako jarduerak izan beharko dute, eta gehienez 6 kreditu eskatu ahal izango dira jardueren truke, ULO-aren 46.2.i) artikularen arabera.

I. eranskinean, jardueren zerrenda agertzen da, bai eta jardueren bakoitzak urtean lor dezakeen gehieneko kreditu kopurua ere.

Bigarrena.- Ikasleen ordezkarietako jarduerengatik, kredituak lortu ahal izateko, ikasleek delegatu gisa jardun beharko dute, eta hala dagokionean, kudeaketa organoetan parte hartu, honela:

- ✓ Ordezkariek egindako lanak, Tituluaren Koordinazioak egiaztatu beharko ditu.
- ✓ Kontseilu Errektorearen eta Batzar Orokorraren bileren % 75era joan beharko da. Kontseilu Errektoreko idazkari teknikoak, Fakultateko idazkari akademikoari, organo horren bileretan parte hartu duten ikasleen zerrenda, bidaliko dio, azken horrek, informazio hori izan dezan, ikasleei kredituak emateko.

Hirugarrena.- Kirol jarduerengatik kredituak lortzeko, ikasle interesatuek, MU Enpresagintzako Kirol Zerbitzuaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Kirol jardueretarako, I. eranskinean zehaztutako baliokidetasunak hartuko dira kontuan; eta jardueren hauengatik, gehienez 3 ECTS lortu ahal izango dira.

Laugarrena.- Prestakuntzarako kultura jardueretan parte hartzeagatik kredituak lortzeko, Enpresagintza Fakultateak antolatutako ikastaroak, mintegiak, biltzarrak, jarduerak eta antzekoak hartuko dira kontuan, betiere I. eranskinean jasotako zerrendan sartuta badaude.

Bosgarrena.- Lankidetzaren jardueretan parte hartzeagatik kredituak lortzeko, kontuan hartuko dira, Enpresagintza Fakultateak antolatutako I. eranskinean zehaztutako jarduerak guztiak.

Seigarrena.- Kredituen onarpenaren interesa duten ikasleek, eskabidea egin beharko dute campuseko idazkaritzan, horretarako prestatuta dagoen dokumentazioa betez.

Zazpigarrena.- Kredituak eskatzeko prozedura honako hau izango da:

1. Ikasleak egindako jardueren ziurtagiriak jaso beharko ditu, dagokionari eskatuz: (titulazioko arduradunari, kirol-arloari, idazkari akademikoari, etab.).

2. Dokumentazio hori titulazioko talde akademikoari helarazi beharko zaio; honek dagokion kreditu-kopurua baliozkotu du eta ikasleari bidaliko dio onarpen eskaera egin dezan Idazkaritza akademikoan.

3. Ikasleak ikasturte bakoitzaren hasieran egin ahal izango du onarpen-eskaera Idazkaritza Akademikoan, eta gutxienez 1,5 ECTS onartzeko eskatu beharko du. Salbuespen gisa, eta 4. mailan matrikulatutako ikasleentzat bakarrik, eskatu beharreko kredituen gutxiengoa 0,5 ECTS izango da.

Zortzigarrena.- Erregelamendu honek atzeraeraginezko izaera izango du. Beraz, garatutako jarduerak eta ekintzetan parte hartzeak kredituak aitortzeko eskubidea emango dute **2013/2014 ikasturtetik aurrera** (gradu-memoriak 861/2010 Errege Dekretura eguneratzea).

Bederatzigarrena.- Fakultateko idazkari akademikoak, ikasleek aurkeztutako dokumentazioa ikusita, hautazko kredituen onarpenaren inguruan erabakiko du. Onartukoak izatekotan, ikaslearen espedientearen sartuko ditu.

Hamargarrena.- Kredituen onarpenak, ez dakar berekin inolako tasa akademikoren ordainketarik.

Arrazoi akademikoak direla eta, ikasleak, tituluko 240 kredituak baino gehiago burutu nahiko balitu, unibertsitate jarduerengatik onartutako kredituak, kontuan hartuko dira, gehiegizko kredituen ordainketa gutxitzeko.

Hamaikagarrena.- Araudi honetan aurreikusi gabeko kasuetan, Fakultateko koordinatzaile akademikoak izango du erabakitzeko ahalmena, Gradu-ko tituluen koordinatzaileen taldearen iritzia jaso eta haiekin erabakia adostu ondoren.

Hamabigarrena.- Jarduera solidarioen kasuan, MYGADE gradu-ko 2020ko planak, zerbitzu-ikaskuntzako jarduerak sustatzen ditu, gradu-ko 4 urteetan matrikulatutako ikasle guztientzat. Jarduera horiek egiteak, ez du kredituen aintzatespenik ekarriko, baina egindako jardueraren kalitatearen arabera, eragina izan dezake ikaslea matrikulatuta dagoen ikasturteko modulu-ko notetan. Zerbitzu-ikaskuntzat har daitezkeen jardueren zehaztapena, jarduera horretan



Mondragon
Unibertsitatea

Enpresagintza Fakultatea
Facultad de Empresariales

aritzen den taldeak egingo du. Talde hau, MyGADE graduko titulazioak aukeratua izango da.

Oñati, 2020ko urriaren 20a

ERANSKINA I

➤ UNIBERTSITATEKO KULTURA EKINTZAK

SOZIO-KULTURALAK	DESKRIPZIOA	BETEBEHARRAK	ECTS	AKREDITAZIOA
GazteRS	Helburua da, Gizarte Erantzukizunaren inguruko kultura bat sortzea, hausnarketarako jardunaldi trinko bat garatuz. Jardunaldi horretan, institutuko azken urteetako eta unibertsitateko lehen urteetako ikasleek parte hartuko dute, baterako sorkuntza eginez, eskualdeko arazo garrantzitsuenen inguruan.	Parte hartze aktiboa, jardunaldiaren antolaketa	0,5	Tituluaren Koordinazioa
Burtsako Kluba	Bazkideak balore merkatuen ezagutzan trebatu, horietan inbertsioak eginez.	Parte hartze aktiboa, taldearen hileroko bileretan.	0,5	Klubeko lehendakaria

➤ IKASLEAK ORDEZKATZEKO JARDUERAK

IKASLEAK ORDEZKATZEKO JARDUERAK	DESKRIPZIOA	BETEBEHARRAK	ECTS	AKREDITAZIOA
Ordezkaritza Kontseilu Errektorean	Kontseilu Errektorean parte hartu.	Parte hartze aktiboa	1,5	Kontseilu Errektoreko idazkari teknikoak bidalitako zerrenda
Kurtsoko ordezkaria	Karguari dagozkion ordezkaritza lanak egin	Parte hartze aktiboa	0,5	Tituluaren Koordinazioa
Unibertsitatearen komunikazio jarduerak.	Unibertsitateko esperientzia kontatu, ikasle potentzialen aurrean.	Unibertsitateak sustatutako komunikazio jardueretan parte hartu, (ate irekien jardunaldia, katalogoak, ikastetxeetara bisitak)	0,5	Kaptazio taldea

➤ **KOOPERAZIO JARDUERAK**

SOLIDARIOAK ETA / EDO LANKIDETZAKOAK	DESKRIPZIOA	BETEBEHARRAK	ECTS	AKREDITAZIOA
Ikasle atzerritarrentzako laguntza, Fakultatean kokatzeko	Ikasle atzerritarren egokitzapena erraztu, Fakultatean eta ingurunean	Buddy / Bidelagun lanak egin eurekin, eta horiekin batera, jarduera estra akademikoak antolatu beraiekin.	0,5	International Relations

➤ **KIROL JARDUERAK**

KIROLETAKOAK	DESKRIPZIOA	BETEBEHARRAK	ECTS	AKREDITAZIOA
Txapelketak	Fakultateko barne kirol jardueretan parte hatu, (Txapelketak, Berdintxiketan...)	Parte hartze aktiboa	0,5	MU Enpresagintzako kirol zerbitzua
	MU-ko Txapelketak	Parte hartu; Fakultatea ordezkatu.	0,5	MU Enpresagintzako kirol zerbitzua
	Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketa.	Parte hartu; Fakultatea ordezkatu.	0,5	MU Enpresagintzako kirol zerbitzua
	Espainiako Unibertsitate Kirol Txapelketa.	Parte hartu; Fakultatea ordezkatu.	1	MU Enpresagintzako kirol zerbitzua
Ikastaroak	Kirol jardunari, osasunari eta elikadurari buruzko prestakuntza, oro har.	Parte hartze aktiboa	1	MU Enpresagintzako kirol zerbitzua
Ikasle kolaboratzaileak, kirol jarduerak garatzeko.	Fakultateko barruko kirol jarduerak garatzen lagundu.	Balioen garapena	0,5	MU Enpresagintzako kirol zerbitzua